

Zure etxeko zaborraren %65a birzikla daiteke. Zuk birziklatzen al duzu?  
El 65% de la basura de tu casa se puede reciclar. Tu reciclas?

## Ohar praktikoak

Hondakin mota bakoitza bereizi eta dagokion lekuan uzteak sortzen dizun lantxoia ez da ezer zeregin hori betez egiten duzun ongia kontuan hartu ezker. Hona hemen *consumer.es* aldizkariak emandako datuetan oinarrituta adibide pare bat:

- Birziklatzen den beirako botila bakoitzarekin kontsumo baxuko lau bonbilak lau ordutan argia emateko erabiltzen duten energia aurrezten da.
- Paperaren kontsumoari erantzuteko Estatuan 20 milioi zuhaitz handi mozten dira urtero. Urte bateko egunkariaren hamarrena birziklatuko balitz 700.000 zuhaitz salbatuko genituzke.

## Normas prácticas

La pequeña molestia que te supone separar y depositar cada residuo donde corresponde no es nada comparado con el bien que puedes hacer con cada uno de estos sencillos gestos, aquí tienes un par de ejemplos. Según datos proporcionados por la revista *consumer.es*:

- Cada botella de vidrio que se recicla ahorra la energía que necesitan cuatro bombillas de bajo consumo para funcionar durante cuatro horas.
- El consumo anual de papel en el estado obliga a cortar unos 20 millones de grandes árboles. Si se recicla la décima parte de los periódicos de un año, salvaríamos 700.000 árboles.



Arratia

Gurekin harremanetan jartzeko:

Para ponerte en contacto con nosotros:



94 631 17 17





udalsarea21.arratia@bizkaia.org

www.arratia.net

### Etxeko hondakin mota ezberdinak bereizi

- Ontzi ezberdinak erabili zabor organikoa, papera eta kartoia, beirako ontziak eta ontzi arinak gordetzeko.

- Pilak, erabilitako sukaldeko olioak, bolumen handikoak, arropa... eta birzikla daitekeen beste edozein gauza ere bereizi ezazu.



Separa los diversos materiales de la basura de tu hogar

- Utiliza recipientes distintos para la basura orgánica, para el papel y el cartón, para los envases de vidrio y para envases ligeros.

- Separa también otro tipo de materiales que pueden ser reciclados como pilas, aceite usado, voluminosos, ropa...



### Hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzian utzi

- Zabor organikoa, papera eta kartoia eta beira: edukiontzi gris, urdin eta berdean, hurrenez hurren.

- Pilak eta arropa: edukiontzi hori txikietan eta edukiontzi zurietan.

- Bolumen handikoak eta erabilitako sukaldeko olioak: zure herrian hauek jasotzeko eskaintzen dizuten zerbitzua erabili.

- Beste hainbat zaborren kontrolik gabeko botatzeak gelditzeko gertuen duzun Garbigunea erabili.



Deposita cada tipo de residuo en los contenedores dispuestos para ello

- Basura orgánica, papel y cartón y vidrio: en los contenedores grises, azules y verdes, respectivamente.

- Pilas y ropa: en los contenedores amarillos pequeños y los contenedores blancos.

- Voluminosos y aceite usado: utiliza el servicio de recogida que corresponda en tu localidad.

- Para evitar vertidos incontrolados utiliza el Garbigune más cercano.




### Gaikako jasoketaren edukiontziak zuzen erabili

- Aluminiozko tapoi bakar batek edukiontzi oso bateko beira balio gabetu dezake.

- Plastikoa, esne eta zuku kartoia, latak... ez dira edukiontzi urdinera bota behar.

- Edalontzi eta bonbil kristala ezin da batera birziklatu. Horregatik, edukiontzi berdeetan tapoiak kendu eta edozein koloreetako botelak eta flasko hutsak soilik utzi.

- Ez nahastu gainerako hondakinak sendagaiekin, azken hauentzako botiketan edukiontzi bereziak daude.



Utiliza bien los contenedores de recogida selectiva

- Un solo tapón de aluminio echa por tierra el vidrio de un contenedor.

- El plástico, los cartones de zumos y leche, las latas, etc. no han de ser depositados en el contenedor azul.

- El cristal de los vasos y el de las bombillas no se puede reciclar junto con el vidrio de los envases. Por eso, en los contenedores de vidrio deja sólo botellas, de cualquier color, o frascos vacíos y quítalos los tapones.

- No mezcles con la basura los medicamentos, para eso están los contenedores que encontrarás en las farmacias.

### Birziklatzeaz gain, gutxitu eta berrerabili

- Ona da gogoratzea, birziklatzea bezain garrantzitsua dela hondakinak gutxitzea, horregatik bilgarri asko dituzten gaiak ez erosi ahal baduzu.

- Berrerabiltzea hondakinak gutxitzeko beste era bat da, oihalezko trapu eta poltsak erabili, bi aldeetatik inprimatu eta fotokopiatu papearak, idazteko era bi aldeak erabili atzekoa, esaterako, zirriborrotarako, oharretarako...



Además de Reciclar Reduce y Reutiliza

- Es importante recordar que tan importante como reciclar es reducir la generación de residuos, es por esto que te invitamos a evitar productos con numerosos envases, como los plásticos.

- Reutilizar es otra forma de reducir la generación de residuos, utiliza productos reutilizables como trapos y bolsas de tela, imprime y fotocopia páginas de papel por los dos lados, cuando utilices papel no escribas sólo en una cara, puedes aprovechar el otro lado para notas, borradores...